

LATINOAMERIKA

Emakumeak agintarien joerak aldarazteko beste urrats bat egiteko prest

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Azken hamabi hilabeteotan asko nabarmendu dira Latinoamerikako mugimendu feministak eta aginte matxistaren posizioak mugiarazteko makina bat ekimen arrakastatsu plazaratu dituzte. Mexiko, Argentina zein Txileko kaleetan ez da moteldu emakumeen presioa, indarkeria matxistaren aurka eta abortu eskubidearen alde benetako lorpenak gauzatu daitezen; aurrera egiteko exijitzen diete gobernuei. Kaletik alde egiteko asmorik ez dute.

Orain aste batzuk, dozenaka mila manifestari elkartu ziren Argentinako Parlamentuaren aurrean, Buenos Aires hiriburuan, parlamentariak abortu eskubidearen inguruko erabakiak lehenbailehen eztabaidatu eta onartu ditzaten.

Argentinako Senatuak atzera botatu zuen abortua legeztatzeke proposamena 2018an, baina bertako indar korrelazioa aldatu egin da, azken hau-

teskundeetan Alberto Fernandezek zuzendutako zentro-ezkerreko koalizioak lortu baitzuen gehiengoa.

ABORTUA ETA AGENDA

Elsa Schvartzman argentinarrak ekintzaile beterranoak azken hamarkadotako borroka ekarri zuen gogora Senatuaren aurrean kazetariekin hitz egin zuenean, lepoko zapi berdea (mugimenduaren ikurra) jantzita zuela: «Orain inork ezin izango digu esan denbora gehiago behar duela gaia aztertzeke, oso lotsagarria izan-

Latinoamerikan matxismoa atzera egiten hasia da, zenbait herrialdetan sortu dituzten giza mugimenduen kemenari esker. Txileko Las Tesis taldeak koreografia ezin arrakastatsuagoa egin zuen eta dagoeneko mundu osoko feministen himno bihurtuta dago. Argentinan, abortua legeztatzeke mugimendua berriz indartu da. Mexikon «herrialde feminizida» izateari utzi nahi diote.

Ezkerreko irudian, neska bat begiak estalita himno bihurtu den koreografia dantzatzen Mexiko Hirian.
Claudio CRUZ | AFP

Eskuinean, Erica Rivas aktore argentinarra Berlinen.
Tobias SCHWARZ | AFP

rroka ez zela Argentinako kontua bakarrik, nazioartekoa baizik. Latinoamerikan batez ere, eskubide horren aldeko borroka herrialdetik ateratzeko beharra sentitzen zen. Lepoko zapi berdearekin bat egin zuten borroka horiek guztiek».

AMAK ERAKUTSITAKOA

Erica Rivas aktore argentinarra saririk gabe itzuli da Berlinale Berlingo Nazioarteko Zinemalditik. Ideia feministak defenditzen ditu eguneroko bizitzan zein zinean: industria horretan emakumeen arteko babesaren aldekoa da, aldaketaren bat lortu nahi bada; eta kalean antolatzen diren protestaldietan berak esku hartzea ez da inor harritzeko modukoa.

«Nondik datorkizu joera feminista hori?», galdetu berri diote Alemaniako hiriburuan. «Nire amarengandik», erantzun zuen aktoreak.

Rivasek kontatu duenez, amak, ikasketak egiten zituen bitartean, lau seme-alaba hazi zituen erabat ahulduta egon arren. Horregatik esaten omen

go litzateke-eta. Abortuaren legeztatzea agenda publikoan ezarri izana kalean egindako borrokaren fruitua da, azken 30 urteotako borroka feministaren berreskuratu duten kanpainen emaitza».

Argentinako feministek egindako borroka eredutzat dute Latinoamerikako herrialde gehienetan, haurdunaldia etetea delitutzat baitute oraindik leku gehienetan, Uruguai, Kuba eta Mexiko Hiria aparte utzita. Yanina Waldhorn ekin-tzaileak kazetariei esan die-nez, «2018an ikasi genuen bo-



zion Ericari: «Ez zaitez gizon baten mendeko izan. Norberak egiteko esaten zuen, autoa gidatzeko aukera izan bezain pronto autoak gidatzeko». Gainera, aktoreak bere amona «zapalduak» ekarri zituen gogora, haiek ere joera hori indartu zutelakoan.

Argentinan politikariak es-tutzen saiatzen ari badira, Andeen beste aldean beste urrats bat egin dute eta Txileko Alderdi Feminista sortzeko trami-teak abian jarri dituzte emakume batzuek. Beren helburua litzateke herrialdean idazten ari diren Konstituzio berriaren prestakuntzan nola-baiteko eragina izatea.

Alderdi berria oso testuin-guru berezian jaioko da, Txilen sortutako kanta eta koreo-grafia bat mundu osoan erabiltzen den himno feminis-ta bihurtu baita.

KOREOGRAFIA ARRAKASTATSUA

Las Tesis izeneko kolektiboak plazaratu zuen «Bortxatzaile bat zure bidean» izenburuko performancea, mundu osoko mobilizazioetara iritsi den koreografia ezin arrakastatsua-goa. «Esnaera garbi bat izan dugu Txilen eta Las Tesis taldearen indarrak erakutsi digu emakumeok ahal dugula alderdi propioa eraiki; herrialde



hobe, justuago eta berdinzale-agoa eraikitzeke garaian eragi-na izateko momentua dela», azaldu dio Efe berri agentzia espainolari Rosa Moreno PAF Alderdi Feminista Alternatibo-ko presidentek.

Adin eta esperientzia profesional ezberdinetako emaku-meak dagoeneko alderdian sartu dira eta Servel hautes-kunde zerbitzuak aurki esango die alderdi politiko bihurtuta dauden ala ez. Ehunen bat

Txileko manifestariak segurtasun indarrek atxilotuak bortxatu egiten zituztela gogorarazi zuten otsailaren 28an Santiagon egindako mobilizazioan.
Martin BERNETTI | AFP

Beheko argazkia Mexiko Hirian egindakoa da.
Claudio CRUZ | AFP

emakume elkartu ziren orain aste batzuk Servel zerbitzuko egoitzaren aurrean festa giroan, pankartak eta zalaparta eragiteko makina bat tresna hartuta.

Moreno eta beste kide batzuk dokumentazioa entregatzerantz sartu ziren bitartean, gainerakoak kanpoan geratu ziren, kantari kasu batzuetan eta beren eskariak oihukatzen besteetan. Urrats hori bete eta gero, sinadurak bildu behar di-

tuzte orain herrialde osoan zehar Txileko historiako lehen-dabiziko alderdi feminista bihurtzeko.

BOTO ESKUBIDEA


Rosa Moreno 65 urteko politologoak gogora ekarri zuen XIX. mendeko lehen hamarkadatan izan zirela Txilen emakumeek osatutako alderdiak. Haien helburua botoa emateko eskubidea onartzea zen. PAF litza-teke, beraz, genero berdintasu-

«HERRIALDE FEMINIZIDA BATEAN BIZI GARA»

Mexikoko makina bat hiritan milaka emakumek dantzatu dute «Bortxatzaile bat zure bidean» koreografia. Herrialde horretako feministek, gizon zein emakumeek, feminizidioen fenomeno ikaragarriari egin behar diote aurre. Txiletarrek sortutako pieza dantzatu ondoren, izena eman nahi ez zuen eta burua estalita zeraman neska gazte batek adierazi zuen beraiek urteak daramatzatela feminizidioen aurkako borrokan: «2019an,

datu ofizialen arabera, milatik gora emakume erail zituzten Mexiko osoan. Gainera, duela gutxi emakume eta ume baten hilketek erabat hunkituta utzi zuten herrialdea. Kalera irteten ari gara Estatuari exijitzeko emakumeon giza eskubideak bermatzeko, herrialde feminizida batean bizi gara-eta. Izan ere, geure herrialdean gure gorputzek ez dute garrantzirik, baztertzeko modukoak dira». Matxismo instituzionalari ere aurre egin behar diote.





Mexikoko UNAM Unibertsitateko ikasleak, «Bortxatzaile bat zure bidean» koreografia dantzatzen. Argazkiak iazko azaroan egindakoak dira. Claudio CRUZ | AFPz



na ardatz moduan hartu duen lehen formazioa, Moreno Greenpeace talde ekologistako buru ere izan zen ekintzaileak azaldu duenez.

«Txileko feministok ez genuen alderdi politikorik eratzeko asmorik, horrek sistema patriarkalean sartzea eskatzen zuelako, baina gure iritzia al-

Argentinako feministen borroka eredutzat dute Latinoamerikan, haurdunaldia etetea delitutzat baitute oraindik leku gehienetan, Uruguai, Kuba eta Mexiko Hiria aparte utzita

«Las Tesis taldearen indarrak erakutsi digu emakumeok ahal dugula alderdi propioa eraiki, herrialde berdinzaleagoa eraikitzeko garaian eragina izateko momentua dela»

datu eta borroka instituzioetatik bertatik egitea erabaki dugu». Hitz horiekin kontatu digu iritzi aldaketa.

Gizarte ezberdina, justua, bizidetzkoa, elkartasuna nagusi izango duena eta bortizkeria patriarkal eta neoliberaletatik libre izango dena eraiki nahi du alderdi feminista berriak.

Eta lehentasunezko kontua izango da emakumearen gorputzaren inguruko erabakiak hartzeko eskubidea emakumeek beraiek izatea.

Gainera, Txileko alderdi berriaren bultzatzaileek emakumeek etxean egindako lana ordaintzea exijitzen dute. Eta seme-alabak eta aitona-amonak zaintzeko lana modu egokian banatzea. Ingurumena zaintzea eta, Txile izanda derrigorrezkoa, «kalitatezko hezkuntza ez-sexista eta doakoa» lortzea ere beraien helburuen artean ageri dira.

Rosa Moreno politologoak aurreratu duenez, azkenean alderdi politikoa eratzea lortzen badute, apirilaren 26an egingo den erreferendumean egungo Konstituzioa, Augusto Pinochet diktadorea agintean zela egindakoa, aldatzearen aldeko botoa eskatuko dute. Hurrengo hauteskundeetara aurkezteko asmoa ere adierazi dute.

Diktadura oso gogoan dute oraindik txiletarrek. Pinocheten indar armatuek oso gogor astindu zituzten beren interesen aurkako giza mugimendu guztiak, eta egungo poliziek eta soldaduek gauza bera egingen dute manifestariekin.

Joan den abenduaren 4an milaka emakume, gehienak garai batean gazteak izandakoa, errepresioaren ikur bihurtu zen Estadio Nazionalaren aurrean elkartu ziren “Bortxatzaile bat zure bidean” abestia kantatzeko. Une horretan pentsatu zuten Morenok eta beste feministek mugimendua politikan modu zuzenagoan sartzeko prest zegoela.